

Hauteskundeak iritsi dira Lasarte-Oriara

Alderdi ezberdinek herrian ekintzak burutu dituzte aste honetan zehar

Eusko Legebiltzarreko Hauteskunde kanpaina hasi dela telebistan, irradian eta egunkarietan nabari da, baina gure herrian ere hortaz jabetzeko aukera ezberdinak izan ditugu aste honetan.

Batetik herrian gora eta behera dabilzan kotxeak daude eta bestetik hainbat alderdik Lasarte-Orian burutu dituzten ekintzak.

Astearte arratsaldean, EAJ-PNVk Okendo plazan *Orain inoiz baino gehiago* lelopean, Ibarretxeren aldeko botoa eskatu zuen.

Asteazkenean, berriz, PSEE eta Ezker Batuak-Berdeak alderdien txanda izan zen.

PSEEk kideek arrosak banatu zituzten merkatuan eta *Subete al cambio* autobusa ere bertan ikusi ahal izan zen.

Bestalde, Okendo plazan Ezker Batuak-Berdeak taldeko mitina egin zuen, Javier Madrazo lehendakari gaiak Gipuzkoako Mikel Arana zerrenda burua eta alderdiko kideek lagunduta errauskai-

luaren aurka agertu zen. Era berean, Hondakin Legea eta Ontzien Euskal Legearen alde, baita ingurumeneko gaietan herritarren iritzia eta parte hartzearen alde ere. Ostean, guztiak merkatura hurbildu ziren.

PP eta EA alderdien ekintzen berri ez dugu izan. Hala ere, aste bete falta da kanpaina bukatzeko eta alderdi guztiek zalantzak dituztenen botoaren bila jarraituko dute.

D3Mren ilegalizazioa

Bestalde, hauteskunde hautan ez dira Euskal Herrian dauden pentsaera guztiak islatuak egongo, Garzonek astearte iluntzean D3M eta Askatasunaren jarduerak eteteke agindua eman baitzuen.

Gainera, ezker abertzaleko alderdiek «zuzenean edo zeharka edozein hauteskunde ekitaldi, deialdi edo prentsaurreko» egitea debekatuta dutela eta agindua betetzen ez duenari desobediencia egotziko zaiola ohartarazi du. •



EAJ-PNV alderdiko kideak astearte arratsaldean Okendo plazan egon ziren propaganda, gozokiak eta globoak banatzen.



Asteazkenean, Ezker Batua-Berdeko Javier Madrazo lehendakari gaia merkatura hurbildu zen jendearen botoa eskatzeko.

ALBISTEAK | 3

Aberastasuna banatu kanpaina: bankari, agintari eta enpresarien jokabidea salatu du ELAK



Igandean ETBko Errazu saioan Lasarte-Oria eta lasarte-oriarrak aterako dira /4



Inauteri giroan murgilduko gara gaurtik aurrera: Bihar arratsaldean karrozen desfilea /5

bozkatu
EAJ
PNV
Jakin eta eman

Ibarretxe

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO

Zorion-agurrak



Aina

Zorionak printzesa, (ya) 20 urte. Muxu bat gurasoen partez.



Andrea

Zorionak laztana! 8 muxu, Haizea, Naroa eta familiaren partez.



Maite

Ondo pasa 19an, musu asko guztion partetik



Ane

Zorionak Ane! Txokolatezko muxuak zure seigarren urtebetetzean.



Maialen eta Jon

Zorionak zuen urtebetetzean eta ondo pasa. Zuen familiaren partetik.



Pedro

Zorionak aita eta maite zaitugu Noelia eta Unairen partetik.



June

Txokolatezko bi muxu zure urtebetetzean! Amoñ, aitona eta familia osoaren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Logela bat alokatzen da etxebizitzaren batean, Zumaburuko auzoan, Lasarte-Orian. Harremanetan jartzeko zenbakia honakoa da, 600 612 085

• Urbarten garaje marra bat alokatzen da. Harremanetan jartzeko zenbakia: 943 363 524

• Logela bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona garbia eta ez erretzailea bilatzen da. Alokairua 230 euro dira eta gastuak aparte. Harremanetarako zenbakia, 686 932 714.

• Landak: Vieux Boucau-n (Le Boulanger urbanizazioan) 4 pertsonentzako estudio bat alokatzen da Aste Santuan eta Pazko astean. Interesatuek telefono zenbaki honetara deitu: 943 370534, gaez.

Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 688.667982.

Lan-eskaintzak

• Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 688 687 285

Lan-eskariak

• Pertsona bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, bai haur baita aitona-amonak zaintzeko, e.a. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki hauetara: 943 361985 edo 659 590217

• Neska arduratsua eta esperientziarekin eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo/eta haurrak zein helduak zaintzeko arratsaldez. Tel.: 620 036 888.

Salerosketak

• Inauteritako mozorroak salgai ditut: Asterix-Obelix, iratxoak, etab. Informazio gehiago 638421713 telefono zenbakian.

• Mutilentzako jaunartzeko jantzi berriak eta oso prezio onean saltzen ditut, 60 eurotik aurrera.

Oharretarako:

Tel.: 943 366858
Geltoki kalea 4

txintxarri@ttakun.com
www.txintxarri.info
www.txintxarri.iragarkiaburrak.com

Jaiotzak

- Irati Echeverria Berasategui, otsailaren 13an.
- Angel David Coronel Ynfante, otsailaren 11n.
- Nora Valdés Mateos, otsailaren 7an.
- Aitor Cuadrado Rodríguez, otsailaren 3an.
- Mikel Barranco Pérez, otsailaren 1ean.
- Idora Gaimza Gestido, urtarrilaren 31ean.



Heriotzak

- M^a Concepción Muga Urdampilleta, otsailaren 15ean 88 urte zituela.
- Margarita Teresa Del Val Gómez, otsailaren 11n 67 urte zituela.
- Bruna Valdeolmillos Paredes, otsailaren 10ean 90 urte zituela.



Guardiak

- Ostrala, 20**
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371 151
- Larunbata, 21**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Igandea, 22**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Astelehena, 23**
Rodríguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Asteartea, 24**
Gil, Kale Nagusia 14
Tel.: 943 361529
- Asteazkena, 25**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Osteguna, 26**
Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112

Udala

- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Bakezko epaitegia ... 943371629
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- Zentro Zibikoa ... 943363958
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180



www.gipuzkoangazte.info

Hiru udaltzain Urretxuko udalerako

Hiru udaltzain-lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa Urretxuko Udalean. Bete beharrekoak: 18 urte beteta eta 32 bete gabe izatea; Eskola-graduata edo Lehen Mailako Lanbide Heziketako ikasketak izatea; gizonzkoek gutxienez 1,65 metroko altura eta emakumezkoek 1,60 metrokoa izatea; B motako gidabaimena izatea. Izena emateko azken eguna martxoaren 9a. Informazio gehiagorako edo izena emateko jo Urretxuko udalera: Iparraguirre kalea 20 zenbakia; telefona: 943

Gazte Informaziorako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

308080; e-maila: urretxu@urretxu.net.

Obra eta zerbitzuak mantentzeko peoi bat Bergarako udalerako

Bergarako Udaleko obra eta zerbitzuak mantentzeko peoi-lanpostu batetzeko oposizio-lehiaketa. Bete beharrekoak: 16 urte beteta izatea; Eskola-ziurtagiria edo parekoa den titulazio maila izatea; I. hizkuntza-eskakizuna, ez derrigorrezkoa. Izena emateko azken eguna otsailaren 26a. Informazio gehiagorako jo Bergarako Udalera: San Martin Aguirre Plaza, I;

telefona: 943 779100; e-maila: bergara@bergara.net.

Gizarte-laguntzaile bat Bergarako udalerako

Bergarako Udalean aldi baterako gizarte laguntzaile bat kontratatu eta lan-poltsa osatzeko lehiaketa oposizioa. Bete beharrekoak: Gizarte Lanean diplomatu izatea; 4. hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkoa. Izena emateko azken eguna otsailaren 27a. Informazio gehiagorako jo Bergarako udalera: San Martin Aguirre Plaza, I; telefona: 943 779100; faxa: 943 779163.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

'Aberastasuna banatu' kanpainari ekin dio ELA sindikatuak

TXINTXARRI

ELA sindikatuak "Aberastasuna banatu" leloa duen kanpainari ekin dio Buruntzaldea eta Goiherri eskualdetan. Sindikatuaren ustez, Gobernu, Patronal eta Banketxe-Aurrezki Kutxen ekonomia eta gizarte-politikaren ondorioz iritsi gara gauden tokira. Beraz eurak, bankari, enpresari eta agintariak dira ELAK asteartean salatu zuzenez krisiaren erudun bakarrak eta gizarteak jakin dezan, enpresaz-enpresa eta herriz herri emango dute horren berri. Kanpainan zehar bilera eta mobilizazioak egingo dira ekainera bitartean eskualde osoan, "egin dutena" salatzeko. Maiatzaren 1ean Bilbon elkartuko dira, maiatzaren 15ean Beasainen Oria eta Goierriko ordezkarien manifestazioa egingo da eta ekainaren 5an amaituko da kanpainaren lehen fasea Bilbon ekitaldi nazionalarekin.

"Aberastasuna banatu" izenburuarekin hausnarketarako gaia proposatzen du ELAK: "azken 15 urtetan, bai enpresa pribatu zein publikoetan, diru irabazi itzelak izan dituzte, beti ere, langileak aintzakotzat hartu gabe". ELAK salatu du aberastasuna eta etekin banatzeko asmorik ez dutela izan eta ez hori bakarrik: hainbat lantoki eta sektoreetan lan baldintza okerragoak jarri dituzte. Eta guztia administrazio publikoaren onespenerekin. Honen adibidea, lan publikoak pribatizatzea eta lan baldintzen kaxkartzeta izan da.



Mikel Muñoz, Iker Urruzola eta Kristina Oterminek enpresari, bankari eta agintarien jokabidea salatu zuten.

Kapital metaketa

Sindikatuaren iritziz, politika neoliberalen emaitza izan da hori. "Enpresari eta kapitalaren alde jo dute, euren eskuetan itzelezko kapital metaketa ahalbideratuz". ELAK salatu duenez, ez da egia dirurik ez dagoenik, hori behin eta berriro errepikatzen badute ere. "Enpresariak eta kapitalen errentei barkatzen dieten dirua, behar beharrezkoa du esparru publikoak, gizarte gastuak handitzeko eta herritarren beharrei erantzuteko".

Baina agintariak ez dute euren politika aldatzeko asmorik, are gehiago egoera okertu

duten politika horiek indartzen ari dira, errenta altuenen zergak urritu egin dira eta bitartean langileen lan baldintza kaxkarrak ugartu eta gizarte gaitako gastuak murriztu. "Onartezina da, gauden egoeran gobernuak gehien dutenen zergak murriztea".

Beraz ELAren ustez derri-gorrezkoa da aberastusunaren banaketa eta aldi berean patronal eta agintariak jarrera salatu du: "Patronala krisi egoeraz baliatzen da justifikatu gabeko EREak aurkezteko eta Eusko Jaurilaritzak bat egin du enpresa-buruekin ERE horiek onartuz. Eta egoera pribilegiatuaz baliatzen dira eurentzat abantailak lortu eta langileei txantajea egiteko:

soldaten murriztea, malgutasuna,... eskatuz".

Diru publikoa banketxeei

ELAren salaketa hirukoitza da. Enpresariak ekonomia hazten ari zenean, lan baldintza kaxkarrak bultzatu eta etekin handia izan dute. Orain gorakadarak ez dagoenean Europa osoan baino lanpostu gehiago desagertzen ari dira. Bestalde, EAEn langabeziaren zifrak manipulatu direla eta agintariak banketxeei hauen zuloak estaltzeko diru publikoa eman diotela salatu du ELAK. Sindikatuaren ustez, behar beharrezkoa da esku hartze publikoa, Banku zein Aurrezki Kutxen kontrol ekonomikoa berreskuratzeko. •

Musika garaikidea, jazz eta bossa nova gaurko musika eskaintza

Danak Kideren IV. Musika Topaketek aurrera darraite eta gaur Musikene Flauta Taldearen txanda da.

Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko ikasleek aro garaikideko gitarara prestatu dute, klasikoak alde batera utzi gabe noski. Besteak beste, Freddie Mercuryren *Bohemian Rhapsody* edo Franz Schuberten lau obra, *Der Tod und das Mädchen*, *Der Doppelpanger*, *Ständchen* eta *Trockne Blumen* eskainiko dituzte Brigitarren komentuan 19:30ean hasten den kontzertuan.

Musikene Flauta Taldea

Musikene Flauta Taldea, Mario Clavell Larrinaga irakasleak sortu zuen 2005. urtean Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian. Taldearen lehenengo kontzertuek izandako arrakasta

ikusita, helburu akademikoa gainditu eta zirkuitu profesionalera sartzeko aukera ikusi zuten taldeak.

Ekitaldi ugari egin dituzte penintsulan zehar eta egun Frantzian egingo duten bira prestatzen ari dira.

Taldearen errepertorioko lanak ez dira eremu zehatz batean sailkatzen, ohiko musika-lanetatik aldentzen saiatzen dira eta korronte musikal garaikideak uztartzen.

Anna Valentina hirukotea

Bestalde, jazz-swing eta bossa entzuteko kontzertua izango da Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian, 20:00etatik aurrera. Gazteria eta Festak sailak eta xPessionekin sinatua duten hitzarmenaren barruan kokatzen den kontzertuan Anna Valentina trio taldea



Irudian Anna Valentina hirukoteak Jalgin eskainitako kontzertu arrakastatsuan.

izango dugu.

Anna (ahotsa), Patxi (Baxua) eta Michelek (gitarra) osatzen duten hirukoteak jazz eta bossa nova klasikoak maitatzen du, horregatik joera honetako abestiak formatu minimalista

batean aurkeztuko ditu kontzertuan.

Gaur egun, Donostiako Le Bukowski musika klubean jotzen dute hilean behin, eta pixkanaka ezaguna bilakatzen ari den taldea dugu. •

MERKATU SOLIDARIOA

Haurrak laguntzeko aukera

Santa Teresa ikastetxean, Donostiako Manuel de Lardizabal pasealekuan, urtero merkatu solidario egiten da martxoaren hasieran. Enpresek, dendek eta ikasleek emandako gauzak saltzen dira eta dirua Uganda eta Brasileko haurrak laguntzeko bideratzen da. •

SAN PEDROAK 2009

Herritarren

proposamen bilketa

2009 honi begira San Pedro jai parte-hartzaileak aurrera eramateko asmoz, Gazteria eta Festetako sailak herritarren artean deialdia egin du dagoeneko beren proposamenekin parte hartu dezaten. Bandoak jarri dira portaletan lasarteoriatarrei beren ideiak ematera animatuz. Sailak bere egingo dituzten proposamen horiek ahal diren neurrian gauzatzeko. Otsailaren 23a eta martxoaren 6a bitartean aurkeztu beharko dira, idatziz eta proposamenaren egilearen datuekin Manuel Lekuona kultur etxean dagoen postontzi berdean.

Epea amaituta, sailak ideia guztiak aztertuko ditu ikusteko zeintzuk eraman daitezkeen aurrera.

Departamentuak lasarteoriatar guztiak, eta gazteak bereziki, gonbidatu nahi ditu parte hartzera, modu horretan San Pedro jaiak guztien gustura egin ahal izateko. •

EZKER ABERTZALEA

Martxoaren 1ean bozkarako deialdia

Ezker Abertzaleak ohar bat helarazi digu, non Eusko Legebiltzarreko hauteskudei eta D3M alderdiaren ilegalizazioari buruzko burutazio eta azalpen batzuk egin nahi dituen:

"Martxoaren 1an, Moncloak eta Ajuria Eneak, nahi badute eta ez badute nahi ere, burujabetza eta independentziaren aldeko boz uholdea izango dute. Egundorretan demokrazia 0 egoera gainditurik, Euskal Herriko 3.000.000 biztanleentzako demokrazia eraikitzearen alde milaka eta milaka bozka zenbatu beharko dituzte.

Gure bozak ozenak bezain kontagarrak izango dira. Ez dugu abstentzioa egingo, nahiz eta horretara bultzatu nahi gaituzten maltzurkeriaz.

Zalantzarik ez izan: sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik, hauteskundeetan egon egingo gara, eta gure botoa oso-oso balagarria izango da benetako demokrazia-runtz abian." •

Piropoak erabiliz Lasarte-Orian nola ligatu, igandean ETB1en

Eguerdia da, Zumaburuko zaharren egoitza aurreko lanetan zerbait gertatzen da, kamara bat grabatzen ari baita. Jendea harritu, bertara hurbildu eta bi gazte ikusten dituzte langileekin lanetan. Baina zertan ari dira bertan? Eta nortzuk dira? Jokin Ayerregaray lasarteoriatarra eta Iban Garate aktore eta aurkezlea ziren *Errazu* saioko eszena bat grabatzen. Baina hau ez da programako zatitxo bat baino ez. Igandean, neska laguna lortzeko erakutsiko dituzte ETB kateko programan eta Jokin izango da Iban piropoak botatzen erakutsiko dion maisua.

Lehenengo asteko ostiralean egin zen grabaketa. Zumaburuko eliza aurreko plazan Jokin eta Lasarte-Usurbil Institutuko antzerki eskolako hiru neska *Errazu* saioko kideekin batu ziren. Aurkezpenak egin eta lanera.

Jokinek eta neskek grabatu behar zituzten eszenak azaldu, Garatek Jokini egingo dion elkarrizketaren galderak eta erantzunak zahaztu, piropoak errepasatu eta grabaketarako lekuak bilatu zituzten ziztu bizian.

Eszenen grabaketa

Grabaketa ere azkarra izan zen, nahiz eta guztia hirutan errepikatu behar izan zen, kamara bakarrekin eszenako plano desberdinak grabatu behar baitziren.

Lehenik Zumaburuko zaharren egoitza aurreko lanetan piropo egokiak nola esan erakusten dio Jokinek langileetako bati.

Ostean, Ibanek laguntza eskatzen dio Jokini piropoak esaten ikasteko. Eta, era berean, elkarrizketa egiten dio Jokini.

Urtarrilaren 11an hasi zen *Errazu* programa eta aste hauetan zehar, Euskal Herriko hainbat herri bisitatu ditu, bertako euskalkiak edo esae-
rak ezagutzeko. Kirola, osasuna edo inauteriak jorratu dira Iban Garatek aurkezten duen programan eta oraingoa nola ligatu izango da gaia. Horretarako, besteak beste, Lasarte-Oriara hurbildu da. Hemen Jokin Ayerregarayren laguntza izango du Ibanek piropoak botatzeko. Baina Jokin ez da *Errazurekin* lotura duen lasarteoriatar bakarra. Izan ere, Naroa Illarramendi eta Idoia Garzes herritarrek programan lanean baitihardute. Honela, Jokin eta Naroarekin hitz egin dugu aste honetako programaren nondik norakoak jakiteko.



Iban Garatek Jokinek erakutsitakoa praktikan jartzen du banku batean dauden neska gazteekin, zer gertatuko ote da?

Bukaeran, ikasitakoa praktikan jarri behar du gazteak eta banku batean hiru neska gazte daude eseriak.

Hau da Institutuko nesken txanda. Bakoitzak paper bat antzetzten du, bordea, irrifartsua eta piropoak atsegin dituena, eta aurkezle azpeitia-

rrak esandako piropoei erantzun behar diete.

Piropo egokia aurkitu eta hemendik korrika ateratzen da Iban. Nora joango ote da? Egunetara Jokinekin bildu gara grabaketari buruz hitz egiteko.

“Ii. piropo lehiaketako ira-

bazle izan nintzen eta horretatik hautatu ninduten,” argitu digu Jokinek programan bere paperari buruz galdeztan.

Esperientzia interesgarria

Grabaketari buruz galdeztan, “motza izan zen. Ez

genuen hanka sartze handirik egin eta grabaketa moztea plano kontuagatik izan zen. Gainera, nahiz eta gidorik ez egon, Ibanek asko laguntzen zuen solasaldia ongi atera zedin,” azaldu digu gazte lasarteoriatarrek.

“Esperientzia interesgarria izan zen. Hasieran urduri geuden, baina azkenean oso ondo pasa genuen,” aipatu digu Jokinek, “lehenengo aldia da honelako zerbait egiten duguna, baina errepikatu gogonek.”

Jalgiko agertokia

Hala ere, ez da hau Lasarte-Orian aste honetako saiorako grabatu den gauza bakarra.

Aste bete lehenago, ostiralez, Jalgi tabernako barra bihurtu baitzen *Errazu* emango den beste eszena baten antzezleku. Honetan, gainera, Naroa Illarramendi aritu zen aktore lanetan.

Iban Garate aurkezlea taberna ondotik doa, leihotik gustuko duen neska ikusi eta harengana hurbiltzen da barrura. Lortuko ote du Ibanek Jokinek piropoak botatzeko?

Erantzuna jakin nahi baduzu, piztu ETB1a igandean 21:30ean. •

Nerea EIZAGIRRE

Naroa Illarramendi

Errazu saioko ekoizlea

“Euskal Herriko hizkuntzak erakutsi nahi ditugu”

Enpresaritzatik ikasi ostean, Naroa ETBn praktikak egiten hasi eta errejidore eta ekoizle lanak egin ditu *Goenkale*, *Ordu Txikitan*, *Udazken loreak* edo *Gazteek asko dakie* saioetan. Astero programa bat ematen dute telebistan, baina hiru saioko grabaketa egiten dituzte batera. Lanetik atera eta gurekin egon da solasean.

Zein da zahazki zure lana?

Nire lana ekoizle lana da eta, ondorioz, egun bakoitzak gauza bat ekartzen dizu. Esate baterako, jendea edo kamara behar

dugula, ba horiei deitu behar diet. Egunaren arabera da, baina mila gauza egiten ditut.

Aste honen zer ikusiko dugu *Errazun*?

Maite zaitut du izenburua aste honetako saioak. Bertan Iban maitemindua dago neska batetaz eta neskarekin hitz egiten saiatzen da baina ez du lortzen.

Kanpoko jendeari aholku eske joango da eta, honela, Jokinegana doa piropoak ikastera, Xabier Saldiasengana abestien bidez zerbait lortzen duen ikustera, Lekeitiara ere joango da lehen nola ligatzen zen jakitera...

Nola aukeratzen dituzue *Errazu* agertzen den jendea eta lekua?

Euskarari buruzko saioa da *Errazu* eta Euskal Herriko leku desberdinetan zein hizkuntza erabiltzen den erakutsi nahi dugu.

Beraz, saiatzen gara saio bakoitzean ez izatea denak gipuzkoarrak edo bizkaitarrak, nahasketa egiten dugu. Pertsonaietako bat Donostiakoa bada, bestea Bizkaia aldekoa izan behar du.

Batzuk gidioia egiterakoan aukeratzen ditugu, Xabier Saldias, esate baterako, eta besteak



Naroa Illarramendik aktore lana egin zuen Jalgin grabatu zen eszenan.

telefono bidez, ea nor animatzen den.

Aktore lanak ere egin dituzu saio honetan...

Bi neska behar ziren eta pre-supuesto handirik ez dugunez lan taldeko bi neskek egin behar izan genituen aktore lanak. •

Inauterien musika eta kolorea, gaurtik

■ Landaberri eta Zumaburu-Sasoetako haurrak inguruak girotzen hasiko dira arratsaldean, eta bihar konpartsen desfilearen txanda izango da

TXINTXARRI

Momo Jainkoa Lasarte-Orian da jada, inauterien iragarle. Ohi bezala, umeak izango dira festarako deia erantzuten lehenak, gaur arratsalderako jaialdiak antolatuta baitituzte Landaberri ikastolan eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxean. Bihar, berriz, haur nahiz helduen mozorro, parodia eta musika emanaldi mordoek koloretuko dituzte kaleak, ordu txikiak arte.

Landaberri ikastolako Goi-koetxea eraikineko haurrek euskal inauteriak irudikatuko dituzte jolastokian, 15.30etik aurrera. Atsobakar kaleko egoitzan, berriz, nork bere mozorroa eramango du.

Bestalde, Sasoeta-Zumaburuko ikasle guztiak, bi urtekoak izan ezik, handien eraikineko atarian elkartuko dira; 15.30ean hauek ere. Aurten zirkua aukeratu dute gai moduan, eta horren arabera mozorrotuta, jaialdia eskainiko dute, batez ere gurasoen gozamenarako.

Desfilea eta dantza

Sasoeta-Zumaburuko gazte- txoak ez dira zirkua gaitzat hartu duten bakarrak izan. Ttakun Elkartearen lehen aldiz animatu da biharko helduen desfilean parte hartzen, eta haiek ere zirkuko pertsonaien mozorroak jantziko dituzte: magoak, pailazoak, feralaria, era askotako animaliak... Zabaleta Auzolanean elkarteko kideek Ttakunekin bat egingo dute, gainera.

Desfilea 17.30ean abiatuko da Iñigo de Loiola kaleko seigarren zenbakitik. Ttakuneko kideak azken postuan aterako dira bertatik, lorez mozorrotuko diren Emaku-

meen Zentro Zibikoko kideen, gaitzat Hawaii hartu duten Erketz konpartsakoen eta aurten ijito jantzita lehen aldiz ateratzea erabaki duen guraso talde baten atzetik.

Desfileak Geltoki kalea hartu eta Hipodromo etorbidea, Donostia ibilbidea eta Urko plaza zeharkatuko ditu lehenik, Andatza plazan geldialdia egin arte. Hurrengo geltokia udaletxe aurrean egingo dute, Buruntza kalea eta Donostia ibilbidea berriz igaro eta gero. Ondoren, Kale Nagusian aurrera egin eta Ola eta Zumaburu kaleetatik pasako dira, Isla plazan geldialdia eginez. Zumaburu kalera itzuli eta Kale Nagusiko zaharren egoitzan geratuko dira gero azken aldiz, 19.30ak aldera Okendo plazan sartu arte.


Desfilea biharko inauterien eskaintzaren hasiera besterik ez da izango. Izan ere, Udalak antolatuta, 23.00etatik aurrera disko festa izango da Okendo plazan bertan.

Horrekin nahikoa ez duenak izango du gero ere parranda luzatzeko aukera. Izan ere, 00.00etatik aurrera, Big Time Sound System-en musika izango da entzungai Jalgi kafe antzokian. Alain, Eneko eta Mikelek osatutako talde lasarteoriarrak dantzaz jarriko ditu emanaldira bertaratutako guztiak. Ska, Rocksteady eta Reggae musika nahastuko dute.

Igandean, euskal inauterien txanda izango da. 12.00etan Kotxerasetik atera eta Okendorantz abiatuko dira, bertara 13.30ean iritsiz. Arratsaldean, 18.15ean aterako dira toki beretik, eta Okendo plazan Hartza erreko dute bukatzeko. •



Aurten ere era guztietako mozorroak jantziko dituzte Lasarte-Oriako haur eta helduek.



ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Proba ezazu gure laser zerbitzua

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • LASARTE-ORIA

Gonzalo Sukunza bigarren San Hilario krosean

Lehenigo igandean Kutzaren Denon Artean Denetik langileen elkarteak antolatutako San Hilario krosa burutu zen Donostiako Miramonen.

Zumeatarra taldeko Gonzalo Sukunza lasarteoriatarra bigarren iritsi zen helmugara 23:20 minutuko lehiaren ostean.

Baina ez zen lasarteoriatar bakarra izan, Ostadarreko atletak eta herritarrek ere bertan egon baitziren.

Hona hemen sailkapenean aurkitu ditugun herritarrek:

17. Andoni Illarramendi (24:38); 173. Eduardo Ormazabal (31:29); 176. Mikel

Ormazabal (31:30); 204. Peio Fadrigue (32:53); 226. Carlos Martin (33:02); 227. Jose Luis Delgado (33:02); 231. Xabier Prada (33:13); 242. Jose Ignacio Mendiluce (33:32); 246. Mikel Corta (33:44); 247. Roberto Rebe (33:44); 277. Juan Jose Molano (35:10) eta 334. Sergio Rivera (44:36).

Bukatzean, energiak berreskuratzeko Euskal Giroa elkarteak prestatutako salda beroa eta txorizoa dago parte-hartzaileentzat. Gainera, nahiz eta saririk ez eskuratu, inor ez da esku hutsik joaten etxera, kamisetak banatzen baitituzte guztientzat. •



Mirentxu Etxeko trinketa doan erabili daiteke, libre dagoenean, 15 minutu lehenago eskatuta.

Trinketaren erabilera sustatu nahi du Udal Kirol Zerbitzuak

Udal Kirol Zerbitzuak Mirentxu etxearen ondoan kokatua dagoen trinketaren erabilera udalaren kirol instalakuntzako bazkideak diren artean eta pilotaren edozein modalitate praktikatua nahi dutenen artean sustatzeko ahaleginean jarraitzen du.

Arazoi honegatik interesaturik egon daitezkeen kirolariak instalazio hau erabiltzeko dauzkaten aukeren berri eman nahi die.

Aukera merkeena

Trinketa erabiltzeko modurik

merkeena, kantxaren akura ordaindu gabe, Udalaren Kirol Guneko (Mitxelingo) frontoi estalian edo tenis pistetan eta Udal Kiroldegiko squashetan erabiltzen den ber-bera da eta instalazioa libre dagoen ordua okupatzean datza.

Nola hartu ordua

Aipatutako okupazioa egiteko, interesa duen pertsonak Udal Kiroldegiko harrerara joan beharko du, bazkide txartelarekin, jokatu nahi duen ordua baino 15 minutu lehenago eta bertan dagokion eskaera egin.

Kantxa libre baldin bada-go eta erabiltzeko baimena jasoz gero, aipatutako bazkideak ordu betez jokatu ahal izango du bertan.

Ardua eta arauak

Trinketaren sarrera egiazta-zea eta honen erabilpen ego-kia bazkideen ardurapean egingo dela jakin arazten du Udal Kirol Zerbitzuak.

Era berean, indarrean dagoen Lasarte-Oriako Udalaren Kirol Instalazioen Zerbitzuen Araudia aplikatuko da trinketaren erabilpenean. •

Kirolerako agenda

FUTBOLA

Larunbata 21

10:30ean, Ostadar-Vasconia (Infantil Txiki Kopa) Michelinen.
11:30ean, Ostadar-Bergara (KDT F-11, txapeladunen fasea) Michelinen.
12:00etan, Aretxabaleta-Ostadar (I. O. M., kopa) Ibarren.
12:00etan, Eibartarrak-Texas Lasartearra (II. Erregionala, kopa) Unbe Inf, Eibarren.
16:00etan, Añorga-Ostadar (K. O. M., kopa) Rezola, Añorgan.
17:15ean, Ostadar-Irun C.F.1902 (II. Erregionala, goera fasea) Michelinen.

Igandea 22

16:30ean, Hondarribia-Ostadar (I. Jubenia, igoera fasea) Ondartza, Hondarribin.

FUTBOLA 8

Larunbata 21

15:30ean, Zarautz-Lasarte BHI (eskolarteko infantilak) Asti-Txiki, Zarautzen.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 21

17:45ean, ISU Leihoak-Inter EHU (Gipuzkoako Liga I. Maila) Kiroldegian.

Igandea 22

12:15ean, Kukuiaiga Etxebarri-Aldaz H.K. (Euskal Liga) Etxebarriko udal kiroldegian.

Aste honetan ez dago HERRIKO TXAPELKETAKO jardunaldirik

PILOTA

Larunbata 21

16:00etan, Azkoitiko 1-Intza 2 (eskuz binaka, infantilak) Oriako frontoian.
16:00etan, Oiarpe 2-Intza 1 (eskuz binaka, infantilak) Urnietan.
16:00etan, Intza 3-Urnieta 2 (eskuz binaka, infantilak) Astigarragan.

ATLETISMO

Larunbata 21

11:00etan, Eskolarteko lehiaketaren barne, parte-hartze libreko probak antolatu dira alebin eta infantilentzat, atletismo pistan.

BOLA-JOKOA

Igandea 22

10:00etan, Ostadarreko bolo sailak bikotekako txapelketan parte hartuko du, Legazpin.

Kirolerako oharak

Arrantza baimena

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du 2009ko denboraldiko arrantza baimena eskatzeko epea ireki dela. Baimena bideratu nahi dutenek astearte eta ostegunetan 19:30etatik 20:30etara egin ahaliko dute elkartearen. Baimena eskatzeko azken eguna martxoaren 12a izango da.

Kirol emaitzak

Areto-Futbola

Herriko txapelketa

Buenetxea - ISU Leihoak .0-4
 Biyona - Ori Txiki 16-0
 Ori kris. - Tragoxka 3-3
 Morrison - Ainhua 1-10
 Izkiañ - Obelix 7-1
 Epel - Okela 5-1
 Izarra - Viña del Mar 2-1
 Siglo XX - Katanga 1-5
 Jordi - Mayi 4-7
 Ilargi - Lurra XXI 3-6
 Danena - IOB H.K. 1-3

Iñaki Elizalde Espainiako txapelketarako sailkatu da

Iñaki Elizalde LOKEko judokak Junior mailako Espainiako txapelketako Ipar-eskualdeko sailkapen lehiaketan parte hartu zuen lehenigo asteburuan Tuteran.

90 kilo arteko mailan lehiatu zen judoka lasarteoriatarra eta bigarren postua lortu zuen. Ondorioz, herriko kirolariak martxoaren 6 eta 7an Madrilan jokatu den Espainiako txapelketarako txartela lortu du.

Open kadetea

Bestalde, otsailak 7 eta 8ko asteburuan, Leire Zubizarreta eta Mario Garrido judoka gazteek Madrilan Espainiako open kadetearen borrokatu ziren.

LOKEko entrenatzaileak azaldu digunez, "nahiz eta lehenigo borroka biek irabazi, bigarrenen zorte txarra eduki eta etxera bueltatu behar izan ziren."



Iñaki Elizalde Espainiako Txapelketa jokatzeko txartela eskuratu du.

Gorka Aristegi entrenatzaileak aipatu zigunez, "Leirek aukera ugari eduki zuen txapelketa irabazteko, baina

suerte pixka bat falta izan zitzaion. Maila horretara lehiatu daiteke, baina erakustea falta zaio." •

Egunero

Erakusketa

ZILÖ, herriko artistaren "The Artificial Smile Company" margo erakusketa. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar.



Erakusketa

VIDAS MINADAS, 10 AÑOS DESPUES, Gervasio Sanchezen argazki erakusketa. Asteleheneretik ostiralera irekia. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Ostirala, 20

Kontzertua

MUSIKENeko flauta taldeak eskainiko du kontzertua Danok Kide elkarteak antolatutako IV. Topaketa Musikalen barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.



Inauterietan DJen emanaldia

BIG TIME SOUND SYSTEM taldeak girotuko du Inauterietan gaua Jalgi kafe-antzikian. Eneko Alkorta, Alain Espadas eta Mikel Rezola herriko DJak dira Big Time Sound System taldeko DJak, beraz, ondo pasa nahi duenak ez du aitzakirik, giro ederra izango du inauterietako gauetan Jalgin.

BIHAR LARUNBATA
GAUEKO 12:ETATIK AURRERA
JALGI KAFE-ANTZIKIAN

Kontzertua

ANA VALENTINA trioren kontzertua Udaleko Gazteria Sailak eta Xpressionk zirkuituak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxeko kafetegian, 20:00ean.



Larunbata 21

Kontzertua

DISKO FESTA izango da inauterietan Okendo plazan 23:00etatik aurrera.

Ostirala, 27

Kontzertua

JOSE LUNA ETA ARENA FINAREN kontzertua Andaluziaren eguneko ospakizunen barruan. Sarrera: 4 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean

Antzerkia

HONOLULU LEKU BAT Lana eskainiko du Gilkitxaro taldeak. Antzezleak: Ane Zabala Gabikagogeaskoa eta Galder Perez. Kultur Errota barne dago ekitaldi hau. Jalgi kafe-antzikian, 22:30ean, EUSKARAZ

Eskutitzak

Errestoa Txokora

Eskerrak eman nahi dizkizut berriro ere udal kirol instalazioengatik azaltzen duzun interesarengatik eta, kasu honetan, Loidi-Barren eremuko frontoi berriaren erakuntzarengatik. Ez nuen gutxiagorik espero Kiroletako Saileko Udal Informazio Batzordeko kide batengandik.

Lasarte-Oriako Udala ekintza ezberdinak burutzen ari da kiroleko azpiegiturari dagokionez, adibidez, espazio berriak sortzea edo dagoeneko existitzen direnak eraberritzea herritarrentzako eskaintza zabaltzea eta hobetzea asmoz.

Ekintzetako batzuk baldintzatuta egon dira instalazioaren beraren mugengatik (ikus Michelingo kanpoko edo trinketea), eta honek bere garapena baldintzatu du. Aitor-tu beharra dago zenbait instalazioetan hutsuneak antzeman direla martxan jarri ondoren, eta horiek konpondu egin dira edo zuzentzeko bidean daude (ikus areto futbolero Michelingo zelaia).

Baina nire oroi-menak huts egiten ez badit, gogoratzen dut batzorde informatiboetan eta zenbait gutunen bidez hitz egin dugula gai hauen inguruan eta beti eman diegula zure ardurei erantzuna. Kasu honetan, nahi izan bazenu edo oraindik ere nahi baduzu, Loidi Barreneko frontoi berriaren inguruan egin dezakegu baita ere, izan ere, Kiroletako saila herritar guztien zerbitzura baitago, baita zurrera ere.

Jesús Zaballos
Udaleko
Gazteria eta Festak
saileko zinegotzia

Liburutegiko ordutegia



Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Odol ateratzak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzak egin dituzte Osasun Zentroan (Beko Kaleko egoitza berria) arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitezte, odola ordezkazena da eta odol falta dago!

EHNA bozkatzeko erabili

Bai Euskal Herriari taldeak martxoak 1ean bururtuko diren Euskal Legebiltzarreko Hauteskundeetan EHNArekin bozkatzeko eskatzen die Lasarte-Oriako herritarrei.

Calçotada

Buruntza-Azpi elkarteak jakin arazten du martxoak 7an Katalunian ohiturazkoa den Calçotada egingo duela. Menua calçotak eta arkume errea. Elkarteko ohar-taulan eman daiteke izena. Mahaikide kopurua mugatua da.

Mus Txapelketa

Lasartearran
Lasartearra Elkarteak jakinarazi nahi du irekita dagoela XXXII. Mus Txapelketan izena emateko epea. Interesa dutenek elkartetik pasa daitezke otsailaren 22a bitartean.

Oztabide auzo elkarteak bilera

Arranbide eta Oztaraneko bizilagunei jakinarazten zaie bihar goizeko 11:00etan Arranbideko 10. zenbakian Oztabide auzo elkartearen bilera dagoela.

Tabernarien bilera


San Pedro jaiak direla eta, bilera bat antolatu dute tabernari guztiekin. Bilera otsailaren 26an, osteguna, izango da Geltoki kalean Ttakunen duen bulegoan arratsaldeko 19:30ean.

Bizilagunen Elkarteak marrazketa eta pintura eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak jakinarazi nahi du marrazketa eta pintura eskolatan lekua badagoela. Interesa dutenek izena emateko, asteazkenetan eta ostiraletan egin behar dute arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara kulturetxeko bigarren solairuan.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info



Autobusa AC-DC ikusteko

AC-DC taldeak, martxoak 31 asteartea, Bartzelonan eskainiko duen kontzertura joateko autobusa antolatu da. Oraindik ez dago irteera lekua zehaztua, baina Donostia edo inguruko herri batean izango litzateke. Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Bartzelonarantz eta kontzertu ostean, bueltatuko da. Joan-etorria 50 euro dira eta eserleku kopurua mugatua da. Bidaieren berri gehiago jakiteko bus_acdc@hotmail.com helbide elektronikora bidali mezua.

Ane Labakak bat batean bertsoak kantatzeaz gain, bertso papaerak ere idazten ditu eta bi sari jaso ditu 16 urte azpiko mailan. Batetik, Urretxu eta Zumarragako Udalek antolatutako Iparragirre Sarian lehen postua eskuratu du Amaia Iturriotzekin batera, eta bestalde, Errenteriako Ibon Zabalaren omenez egiten den sariketan ere nagusitu egin da. Hirugarren aldiz jarraian jaso du sari hau.

Bertso-paperetan bi sari eskuratu ditu Ane Labakak

Iparragirre saria eskuratu zuen asteburuan Urretxu-Zumarragan Amaia Iturriotz-ekin batera Errenteriko Ibon Zabala saria jaso zuen abenduan

Ane Labakak berriro ere erakutsi du bertso paperak idazteko duen trebezia. Bi sari jaso ditu 16 urtera arteko mailan: Errenteriko bertso eskolak antolatzen duen Ibon Zabala Bertso Paper Lehiaketan aipatutako mailako lehen saria jaso zuen abenduaren amaieran eta asteburu honetan jaso du 2008ko Iparragirre saria.

Zumarraga-Urretxuko literatur lehiaketan ohiko narratiba eta poesia sariei, bertso paperen atala gehitu zaie aurtur eta 16 urtera arteko gazte txoen mailan Ane Labaka eta Amaia Iturriotz izan dira saridun. Epai mahaia bi sari ematea erabaki zuen, ex aequo. Maila nagusian Iñigo Legorbururen bertso sortari eman diote saria.

Iparragirre saridunen lanak liburuki batean argitaratu ditu Urretxu eta Zumarragako Udalek. Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean egindako sari banaketan aurkeztu ziren liburuki horiek. Saria jaso ondoren, bertso paper lehiaketako hiru irabazleek, Ane

Labaka, Amaia Iturriotz eta Iñigo Legorburuk bertso batekin eskertu zuten antolatzaile eta gainerakoen laguntza.

Hirugarren aldiz Oreetan

Bestalde Ibon Zabala 16 urte azpiko Gazteentzako Bertso-paper Lehiaketako sari bana-keta burutu zen abenduaren bukaeran. Xenpelar Bertso Eskolak eta Lau Haizetara Euskaldunon Elkarteak antolatutako sariketaren aurtengo irabazlea Ane Labaka lasarte-oriarra izan da, aurreko bi urteetan bezala. Aurtengoan, "Zuregatik eta zuretzat" bertso sortarekin irabazi du.

Ane Labaka batxilergoa egiten ari da, eta hain juxtu garai honetan, ikasi eta ikasi dihardu azterketak direla eta. Bertsozalea ere bada eta astean bi zita baditu behintzat. Villabonako bertso eskolara joaten da Amaia Agirre irakaslearekin aritzeko eta bestalde, ostegunetan 7etan elkartzen den Lasarte-Oriako bertso eskolako partaide da. •

Jon ALTUNA



Iturriotz, Labaka eta Legorburu saridunek bertso bana abestu zuten.

ZUREGATIK ETA ZURETZAT 2008ko Ibon Zabala X. Bertso Paper Lehiaketan,

1. Onik irauten badit arnasak baimentzen badit barne solasak bihotzak uzten diona soilik idatziko du arkatzak: (bis) Une gazi ta garratzak malko eta euri jasak, ixiltasun oihu latzak. Noizbait lehengoak izango dira, hala dio esperantzak: bahitu zituzten loreak eta sortu zituzten arantzak. (bis)

2. Kaixo, zer moduz zaude Langraitzen. bizi-irauten edo bizitzen? Bertsoen bidez saiatu ohi naiz zure samina arintzen. Hiztegi osoko hitzen artean onenak biltzen indarrak ez zait akitzen ahalegintzen naiz sentiaraziz hizki bakoitza sentitzen baina tamalez, guztia ez da kartazaletan kabitzen.

Egilea: **Ane Labaka Maioz**

3. Zuk mila egun, guk mila gutun hain zaitut maite, hain zaitut kuttun Tinta beltzaren karminak ere "nahikoa da!" esan zigun. Errugabeko errudun nahiz eta zu egon urrun gertu sentitzen zintugun. Gutuneez gairi ta aurrez aurre ezin aitortu gaur egun: zuk zenbat maite gaituzun eta guk zenbat maite zaitugun.

4. Denbora luzez preso egona, bertan suntsitu nahian persona behartutako bizilaguntzat irainak eta lau horma ezinari dariona hain da etsipen sakona itzuli nahi duzu hona. Eguzki printzek hartu orduko barrote itzalen forma berrogeita bost minututara mugatzen da zoriona.

Doinua: **Naufragoarena**

5. Hogei urtetan hormen menpeko ez zaude lehen baino hobeto. Nor dira haiek beste hamar bete behar dituzula esateko? ez gupidat, ez errespeto kartzelatik irretoko epea biderkatzeko. Beste behin ere argi utzi dute Parot doktrina tarteko edozer egin dezaketela guri mina emateko.

6. Nahiz eta batzuk ez hartu aintzat badakizu zer zaren guretzat: askatasuna maitatzearen preso hartu zuten gazte bat. Gaindituz mugak ta ertzak gauzatuz nahian ametsak zuregatik ta zuretzat, osatu ditut milaka gutun, hiru bertso-sorta behintzat ea hurrengo urtean ezin zaitudan za hartu gaitzat.



Iparragirre sariko irabazle eta epaimahaikoen erdialdean Ane Labaka lasarte-oriarra.

BIHOTZ BAREN-BARRENETIK 2008ko Iparragirre sarietan 16 urte arteko gazteen sailean lehena

Egilea: **Ane Labaka Maioz**

Doinua: **Habanera**

1. Bihotz barren-barrenetik zuzentzen naiz zuregana hitz-neurtuz adierazteko neurgaitza den hitz emana. Uztailearen hamaikaz hau da oroitzen dudana: esan zenidan nintzela zure ametsak dama. Ordituk ehundaka aldiz izan naiz zure laztana laztanetik laztanera hazi zedin harremana taupada azkarren hotsak hau esatera narama: plazerraren gorena da zu ezagutu izana.

2. Maite dut irriparren bidezko elkarriketa nire ezpainek zuretan bilatzen duten oreka. Hamar behatzak dituzu nonbait magia beteta... belarri ertzeke hitzak nire gozamenen meka... Kanelazko muxu eta algodoiezeko fereka... Sabelaldean hegaka hamar mila tximeleta inbidizko kaosean sumatzen ditut tarteka; hegan eginarazteko ahalmena daukazu eta.

3. Zu zara sargori bada txoko itzaldun ospela amodio gutuzi ta pozen arteko koktela nire nahien itsasoan kulunkatzen den batela maitasun olatueta dantzatzen den marinela. Ilargi gabeko gaua argitzen duen kandela, errepikatuko dizut beharrezkoa zurela zure begiradapean urtu egiten naizela ni_ere argizarizkoa izango banintz bezela.

4. Ezin ukatuzkoa da bihotzaren sententzia ezinbestekoak ditu zu ta zure presentzia deskriba ezina zugar gordetzen den esentzia dohai gutzient zerrenda eta akats gabezia. Zure irrian idatzi nahi nizuke poesia behingoan zeharkatzeko plazerrako hesia. Pentsatzen jartzen naiz eta ote zaitut merezia? Berezia zarelako sentitzen naiz berezia.

5. Bertso hauek xuxurlatu nahian belarri ondora zer esan ez nekiela ihes joan zait denbora begiak luzatuz lore sortzaile duzun ahora zure gorpuzta sentituz itsas behera, itsas gora. Nola esan zu zurela beharrezko dudana droga? zutaz mintzo ezin senti asebeta ta gustora baliogabeak dira horrenbeste metafora hitzez deskriba ezina zarelako izango da.

6. Ipuinetatik ihesi joandako printze urdina maitatzen zaitut burua gutziz galtzeko adina. Muxu bidez egiteko hitzez ezin dudana zina ezpainekin tatuatu nahi nizuke azal fina. Paradisuko printzesa eta zure erregina sentitu nadin, sarritan egin duzu ahalegina. Maitasun bilakatzeko orain dudan maitamina; perfektua zinateke existituko bazina...